



Espedientearen kodea: 2023ZZ020002

Espedientearen gaia: Herriko eragileek eta Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antola ditzaten 2023ko dirulaguntzak. Artxiboa: 045/02

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

Oihane Mallagaray Revilla, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023/05/16n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

“HERRIKO ERAGILEEK ETA OIARTZUNGO UDALERRIAN KIROL EKINTZAK EDO JARDUERA BEREZIAK ANTOLA DITZATEN 2023KO DIRULAGUNTZAK. 2023ZZ020002

Tokiko Gobernu Batzorde honek 2023ko urtarrilaren 24an, “Herriko eragileek eta Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antola ditzaten 2023ko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartu zituen.

Oinarri hauetan kontuan izan da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2022-2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta beronen aldaketak martxoak 3ko 1/2022 Legeak ezarritakoak.

GAOn 2023ko otsailaren 10ean argitaratu eta 30 egun naturaleko epea ireki zen eskaerak egiteko.

Epe horretan, Oiartzungo Udalean 15 eskaera aurkeztu ziren.

Eskaera hauek aztertu ondoren Gazteria, Kirola eta Hezkuntza Ez Arautua Batzordeak 2023/04/27an egindako diktamena ikusirik, aho batez, berau onartzea erabaki da. Honela dio:

1. Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira 11.993,08.- euroko gastu onarpena egitea, Oiartzungo Udalaren 2023 urteko aurrekontuko 1 1102.481.341.00.03 2023 (A-59/2023) zenbakidun partidaren kargura, eta “Ez-ohiko Kirol Jardueretako dirulaguntza” kontu-sailaren kontura finantziatuko da.
2. Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako ordainketaren %80a orain egitea eta gainerako %20a ekintza bukatu denetik hiru hilabeteko epean justifikatu ondoren, beti ere, hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen.
3. Ondorengo dirulaguntza hauek ematea:

...../.....

JARDUERA	ESKATZAILEA	Puntuak	DIRULAGUNTZA	1. ORDAINKETA (%80)	2. ORDAINKETA (%20)
EH PALA TXAPELKETA	GIRIZIA KULTUR ETA KIROL ELKARTEA	57	876,92 €	701,54 €	175,38 €
HERRIARTEKO TXAPELKETA	OIARPE PILOTA KIROL ELKARTEA	83	1.276,92 €	1.021,54 €	255,38 €
GAZTEENTZAKO PILOTA EKITALDIA	OIARPE PILOTA KIROL ELKARTEA	39	600,00 €	480,00 €	120,00 €
PILOTA JAIALDIA	OIARPE PILOTA KIROL ELKARTEA	49	753,85 €	603,08 €	150,77 €
EUSKAL KOPA GAZTEEN MTB TXAPELKETA	OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARITZA KK	79	1.215,38 €	972,31 €	243,07 €
OIARTZUNGO GAZTEEN MTB TXAPELKETA	OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARITZA KK	49	750,00 €	600,00 €	150,00 €
URTXALLE SARIA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	51	784,62 €	627,69 €	156,93 €
TXOST PALA SARIA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	44	676,92 €	541,54 €	135,38 €
PASAKA ESKUZ TXAPELKETA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	56	861,54 €	689,23 €	172,31 €
URKABEKO IGOERA	ZORROLA TRAIL KIROL KLUBA	53	360,00 €	288,00 €	72,00 €
INTXIXU TRAIL MENDI LASTERKETA	ZORROLA TRAIL KIROL KLUBA	99	1.500,00 €	1.200,00 €	300,00 €
ZIRKO TAILERRA	OLGA CORROCHANO ARRIBAS	53	815,38 €	652,31 €	163,07 €
GIMNASIA AKROBATIKO TOPAKETA	HIRUKI BIRA GIMNASIA KLUBA	30	461,54 €	369,23 €	92,31 €
XANISTEBAN XVI PALA TXAPELKETA SARIA	GIRIZIA KULTUR ETA KIROL ELKARTEA	49	400,00 €	320,00 €	80,00 €
XLI IBILALDI NEURTUA	BIZARDIA KJKE	54	660,00 €	528,00 €	132,00 €
GUZTIRA			11.993,08 €	9.594,46 €	2.398,62 €

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Oiartzunen, sinaduraren egunean.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU7996a851-739f-4f83-815c-060568ab2b35**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZZ020002-Ebazpena TGB/Ebazpena TGB (OIARTZUNGO UDALA)